

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Ingurumen-jardunbide egokientzako Itun Berdea VI. Sarietarako deialdi publikoa eta oinarriak. 2020. urtea

2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren 2020ko dirulaguntzen deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak. 2019ko abenduaren 23ko ALHAOn — 147. zk.— argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke —www.vitoria-gasteiz.org—, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere.

2020ko ekainaren 19an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak ingurumen-jardunbiderik onenak saritzeko Itun Berdea Sarien VI. edizioaren —2020. urtea— deialdia eta hori arautuko duten berariazko oinarriak. Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, herritarrak jakinaren gainean egon daitezen:

1. oinarria. Xedea

Sari huen xedea da ekimenari atxikitako enpresek —Nazio Batuek garapen iraunkorreko helburuekin (GIH) bat — beren jardueren ingurumen-inpaktu negatiboa murrizteko martxan jarri dituzten jardunbiderik egokien balioa aitortzea du, eta tokiko ekoizpen-sistema ekoizpen-eredu zirkular eta karbono gutxikora igarotzen laguntzea.

Itun Berdea negozio- eta ekoizpen-ereduak eraldatzeko apustua egiten duten enpresen eta enpresa-esparruko erakundeen plataforma bat da, ekonomia berde eta zirkularrerako trantsiziora bideratuta, funtsezkoa baita klima-aldaketaren aurkako erronkari ekiteko. Kudeaketa berdearen jarraibideak bere egiten dituzten enpresak dira, garapen ekonomiko iraunkorra sustatzea helburu dutenak. Ingurumen-kudeaketarekin konprometitutako profesional eta enpresen sarea sortzea du helburu, Vitoria-Gasteiz ekonomi berdearen eta zirkularraren arloan erreferente bihurtu hiri berdea marka sendotu dadin, eta enpresei —beren jarduera-eremua edo tamaina edozein izanik ere— ingurumen-konpromisoak aurrera eramateko eskaintzen zaien aukeratzat jotzen da, beren jarduera eraginkortasun handiagoz ekoitzi, banatu eta kontsumitzeko modu batera bideratzeko aukeratzat.

Hauek dira Itun Berdea Sarien VI. edizioaren helburuak, garapen iraunkorreko 12. helburua (kontsumo eta ekoizpen arduratsua) eta 13.a (klimaren aldeko ekintza) betetzearekin lotuta:

— Itun Berdearen Plataformari atxikitako enpresek klima-aldaketari eta horren eraginei aurre egiteko egiten dituzten ahaleginak jendaurrean saritu, ezagutarazi eta zabaltzea.

— Enpresen esparruan erabilgarritasun praktikoa duten jarduketak ezagutzera eman eta erakustea, gida eta eredu gisa funtziona dezaten, eta beste enpresa batzuetara aldatzerik izan dadin.

— Ingurumenaren alorreko inplikazioa, motibazioa eta kontzientzia lortzea, bai enpresen kudeatzaileena, bai langile guztiena ere.

— Ingurumenarekiko begirunea sustatu eta garapen iraunkorraren aldeko ekintzak bultzatzea, era guztietako enpresa-jardueretan.

— Ingurumen-inpaktu positiboek pertsonen bizitza-kalitatea eta planetan hobetuko duten modu berriak aurkitzea negozio eta enpresetarako.

2. oinarria. Hautagaitzak

Ingurumen-jardunbide egokientzako Itun Berdea Sarien deialdira beren hautagaitza aurkeztu duten enpresek ekimen horri atxikita egon beharko dute, eta garapen iraunkorreko helburuak (GIH) betetzearekiko konpromisoen adierazgarri, beren prozesu, produktu edo zerbitzuen ingurumen-inpaktu negatiboa modu aktiboan murrizteko jardunbide onen bat ezarria izan beharko dute 2019-2020 aldian.

Enpresa bakoitzak gehienez bi jardunbide egoki aurkeztu ahal izango ditu.

Jardunbide egoki guztiei, sarituak gertatu ala ez, zabalkundea emango zaie, Vitoria-Gasteizek garapen iraunkorrek hartua duen konpromisoari Itun Berdearen Plataformak egiten dizkion ekarpenen erakusle diren aldetik.

3. oinarria. Enpresak deialdian parte hartzeko bete beharreko baldintzak

1. Egoitza Vitoria-Gasteizko udalerrian izatea.
2. Itun Berdearen Komunitateari atxikia egotea.
3. Indarrean dauden araudiak betetzea eta zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea, erregelamenduz zehaztutako moduan.
4. Ezingo dute inolaz ere parte hartu Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. eta 3. artikuluetan jasotako egoeretako batean dauden enpresek.

4. oinarria. Kategoriak eta sarien zenbatekoak

Hiru kategorია izango dira, enpresen tamainaren arabera, eta 2.000 euroko sari bana emango da horietako bakoitzean.

- Mikroenpresen kategoría: 1-9 langile.
- Enpresa txikien kategoría: 10 -49 langile.
- Enpresa ertain eta handien kategoría: 50 langile edo gehiago.

Indarrean dagoen zerga-araudiari lotuta egongo dira sariak.

Gainera, ohorezko aipamenik ere egin ahal izango da, diru-saririk gabe, egindako lana nabarmentzeko.

5. oinarria. Balioespen-esparruak

Sari honetara aurkeztutako jardunbide-egokiek garapen iraunkorreko 12. helburua (kontsumo eta ekoizpen arduratsua) eta 13.a (klimaren aldeko ekintza) betetzen lagundu behar dute, eta enpresak bere antolakuntzan ezarri dituen alderdi zehatzen ingurukoak izan beharko dute, hobekuntza-esparru hauetakoren batean:

- Energiaren alorreko hobekuntzak: energia-kontsumoaren murrizketa, energia berriztagarriak, energia kudeatzeko sistema eta abar.
- Uraren alorreko hobekuntzak: ur-kontsumoaren kontrola eta aurrezpena, isurtzen diren hondakin-uren murrizketa eta abar.
- Hondakinen alorreko hobekuntzak: minimizatzea, berrerabiltzea, materialak baliozkotzea, ezabatzea (lehengaiekin ordeztzea dela medio)... eta hori guztia ekonomia zirkularraren ikuspegitik.
- Lurzoruaren alorreko hobekuntzak: konpontzea, kutsadura galarazteko neurriak ezartzea eta abar.
- Airearen alorreko hobekuntzak: karbono-aztarna kalkulatu, murriztu eta konpentsatzea, emisioak ekiditeko neurriak ezartzea eta abar.

– Lehengaien eta material osagarrien kontsumoaren alorreko hobekuntzak: kontsumoa kuantifikatzea eta murriztea, erosketa berdea eta abar.

– Beste alderdi batzuen hobekuntza: ingurumen-kudeaketako sistemak, bizitza-zikloa, ekodiseinua, birmanufaktura, ekoetiketak... Mugikortasun iraunkorra, ingurumenaren alorreko informazioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa, eta abar.

– Aurreko ataletan jaso ez den beste edozein alderdi.

6. oinarria. Balioespen-irizpideak

Enpresek 2019-2020 aldirian ezarri dituzten jardunbide egokiak balioetsiko dira, ingurumen-alderdiak hobetzera zuzenduak direlarik, balia bideen —lehengaiak, ura, energia— kontsumo arduratsu eta eraginkorraren bitartez, emisio eta isurketen murrizketaren bitartez, eta abar.

Bereziki kontuan hartuko da ekintza isolatuak ez izatea, enpresak epe ertainerako duen estrategiaren parte izatea (horizonte 2030), eta enpresa-sektoreak behar duen trantsizio-ekologikoaren baitako jardunbide egokien adibide izatea.

Orobat balioetsiko da pertsonen bizi kalitatea eta planeta hobetzen laguntzea.

Jardunbide egokiak balioesteko honako hauek hartuko dira aintzat:

– Jardunbide egokiaren aplikagarritasuna eta errepikagarritasuna.

– Jardunbide egokiaren originaltasuna eta efikazia.

– Izaera berritzailea.

– Ingurumen-inpaktu positiboa.

– Aurkeztutako lan, jarduera edo proiektuaren eragin soziala.

– Planeta eta pertsona guztien bizi-kalitatea hobetzeko laguntza

– Epe ertaineko plangintza baten barruko jardunbide egokia.

Balioespen-prozesuan, egokitzen jotzen badu, ziurtagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango du epaimahaiak, eta behar diren egiaztapenak egin. Jardunbide egokiari eta horrek duen inpaktuari buruzko informazio egiaztagarria eman beharko dute hautagai diren enpresek —agiri ofizialak, material grafikoa edo digitala, eta abar—, organizazioan ezarri diren alderdi zehatzen inguruan.

7. oinarria. Aurkeztu beharreko agiriak

I. eranskinean ageri den eredu ofiziala baliatuz aurkeztu beharko dira sariketan parte hartzeko eskabideak. Eskabideak honako dokumentazioa eramango du atxikita:

– Enpresaren IFZren kopia, eskabidea aurkezten duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia, eta, hura titularra ez bada, jarduteko ordezkatzeko-ahalmenaren egiaztagiria.

– Garatutako jardunbide egokiaren eta hartutako neurrien alderdirik nabarmenenak zehazten dituen oroitidazkia, non orobat zehaztu ahal izango diren horren ondorioz ingurumenaren eta enpresaren izandako emaitzak eta onurak - II. eranskina. (Gehienez lauzpabost orriko luzera gomendatzen da).

– Aurkeztutako jardunbide egokiari eta enpresari buruzko material grafiko eta digital hau:

1. Datu aipagarriak edo informazio osagarria, eta jardunbide egokia argitzen duten irudiak. Ahal dela, jpg edo tiff formatuko argazkiak (gutxienez 2 edo 3).

2. Enpresa eta bere jarduerak aurkezteko irudiak, ahal dela, jpg edo tiff formatuko argazkiak (gutxienez 2 edo -3).

3. Enpresaren logoa, jpg, tiff formatuan.

Itun Berdeko Enpresen IX. Topaketan sariak banatzeko egiten den ekitaldian jardunbide egokiak eta enpresa irabazleak aurkezteko euskarri bisual gisa baino ez da erabiliko material grafiko hori.

Era berean, informazio gehigarria eskatu ahal izango du epaimahaiak, aurkezten diren hautagaien ahalik eta ikuspeirik zabalena edukitzeko hartara.

Parte hartzen duten enpresek entregatzen duten informazioa sariak zeini emango zaizkien erabakitzeko baliatuko da, eta isilpeko informazio gisa gordeko, salbu eta epaimahaiaren ustez publizitatea egin behar zaien alderdiak, saria irabazi duten enpresei dagozkielarik eta sariarekin ikustekorik dutelarik.

8. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek (aldez aurretik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean laburpen-iragarkia argitaratuko da).

2020ko irailaren 1etik urriaren 6ra artekoa izango da hautagaitzak aurkezteko epea, biak barne.

Deialdi honen I. eta II. eranskinetan ageri diren ereduak baliatuz aurkeztu beharko dira eskabideak, eskatzen den dokumentazioa erantsita, Vitoria-Gasteizko Udalaren herritarrei laguntzeko bulegoetan edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren moduetakoren bat baliatuz.

Udalaren webgune honetan daude oinarriak eta eskabide-orrria: www.vitoria-gasteiz.org/itunberdea.

Epez kanpo aurkezten diren eskabideak ezetsi egingo dira.

9. oinarria. Epaimahaia

Honakoek osatutako epaimahaiak erabakiko du Ingurumen-jardunbide egokientzako Itun Berdea VI. Saria zeini eman:

– Juncal Ibeas Larrañaga, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua.

– Olga Martin, ACLIMA-Euskadiko Ingurumenaren arloko industrien kluster elkarteko zuzendari nagusia.

– Andres Alonso, Vitoria-Gasteizko Udaleko Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko Energiaren Agentziaren arduraduna.

Epaimahaiko kideak behartuta egongo dira konfidentziasuna gordetzera, aurkeztutako hautagaitzen inguruan, baita eztabaida eta bozketen inguruan ere.

Era berean, Ingurumen-jardunbide egokientzako Itun Berdea VI. Sariak emango dituen epaimahaiaren lana errazte aldera, batzorde tekniko bat eratuko da, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren arloko zinegotziak izendatua, zeinek hautagaitzen eta aurkeztutako dokumentazioaren alde aurreko balioespena egingo baitu.

10. oinarria. Sariak ematea

Epaimahaiak, proiektuen edukietan oinarrituta eta aurkeztutako jardueren ezarpen-maila ezagutzea xede, ebaluazio-bisitak egin ahal izango dizkie enpresa parte-hartzaileei.

Ezingo da epaimahaiak sariak emateko orduan hartzen duen erabakiaren kontra jo. Erabaki hori isilpekoa izango da, eta ez zaie jakinaraziko enpresa irabazleei, ezta gainerako hautagaitzei ere, azaroaren 12an Goiuri jauregian izango den Itun Berdearen Komunitateko Enpresen IX. Topaketan jendaurrean egiten den arte.

Sariren bat nahiz guztiak eman gabe utzi ahal izango ditu epaimahaiak, baldin eta aurkezten diren jardunbide onek nahikoa kalitaterik ez dutela irizten badio.

11. oinarria. Oinarriak onartzea

Ingurumen-jardunbide egokientzako Itun Berdea VI. Sarietarako deialdian parte hartzeak oinarri hauek onartzea ekarriko du berekin.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 19an

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI

I. eranskina: eskabide eredia

<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/50/70/85070.pdf>

II. eranskina: fitxa teknikoa

<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/25/70/62570.pdf>



www.vitoria-gasteiz.org/pactoverde
www.vitoria-gasteiz.org/itunberdea

Ingurumen jarduera egokien V. Itun Berdea saria
I. eranskina: Eskaera eta zinpeko deklarazioa
V Premio Pacto Verde a las buenas prácticas medioambientales
Anexo I. Solicitud y declaración jurada

Ekonomia Sustapena, Enplegua, Merkataritza eta Turismoaren Saila
Departamento de Promoción Económica, Empleo, Comercio y Turismo

pactoverde@vitoria-gasteiz.org

PVER_001

ENPRESAREN DATUAK – DATOS DE LA EMPRESA

ENPRESA – EMPRESA

Izena / Enpresaren izena Nombre / Razón social	NAN/AIZ/IFZ DNI/NIE/CIF
Langileen kopurua - Plantilla	<input type="checkbox"/> 1 - 9 <input type="checkbox"/> 10 - 49 <input type="checkbox"/> ≥ 50

HELBIDEA – DIRECCIÓN

Kalea Calle	Zenbakia Número	Eskailera Escalera
Solairua Piso	Alea Mano	Posta-kodea Cód. Postal
Udalerria Municipio	Lurraldea Provincia	Herria Población
1. Telefonoa Teléfono 1	2. Telefonoa Teléfono 2	Posta elektronikoa Correo Electrónico

LEGEZKO ORDEZKARIA – REPRESENTANTE LEGAL AUTORIZADO

1. abizena Apellido 1	2. abizena Apellido 2
Izena Nombre	NAN/AIZ/IFZ DNI/NIE/CIF

HARREMANETARAKO PERTSONA – PERSONA DE CONTACTO

1. abizena Apellido 1	2. abizena Apellido 2
Izena Nombre	NAN/AIZ/IFZ DNI/NIE/CIF

ENPRESAREN JARDUERARI BURUZKO DATUAK – DATOS DE LA ACTIVIDAD DE LA EMPRESA

JEKN - CNAE

Deskribapena - Descripción

ZINPEKO DEKLARACIO – DECLARACIÓN JURADA

1. abizena Apellido 1	2. abizena Apellido 2
Izena Nombre	NAN/AIZ/IFZ DNI/NIE/CIF
Izena / Enpresaren izena Nombre / Razón social	NAN/AIZ/IFZ DNI/NIE/CIF

BERE ERANTZUKIZUNPEAN AITORTZEN DU: – DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD

- Ezagutzen dituela, eta onartzen, Ingurumen Jarduera Egokien V. Itun Berdea Sariaren oinarriak.
Conocer y aceptar las bases de la convocatoria del V Premio Pacto Verde a las Buenas Prácticas Medioambientales.
- Enpresa onuraduna izateko oinarrietan eskatzen diren betebeharrak betetzen dituela.
Cumplir con los requisitos fijados en las bases para ser empresa candidata.
- Bere gain hartzen duela enpresa onuradunentzako betebeharrak betetzeko konpromisoa.
Que se compromete a cumplir con las obligaciones de las empresas beneficiarias.
- Ez dagoela sartuta zigortzeko inongo prozeduratan, oinarrietan jasotzen den bezala.
No hallarse incurso en procedimientos sancionadores, como se recoge en las bases.

BAIMENA EMATEN DIO – AUTORIZA

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorren Sailari, erakunde hauek dituen betebeharrak beteak dituela egiaztatzeko beharrezko duen informazioa eska dezan: *Al Departamento de Empleo y Desarrollo Económico Sostenible a recabar de oficio la información necesaria para acreditar el cumplimiento de sus obligaciones con:*

- Arabako Foru Ogasunarekin – La Hacienda Foral de Álava Gizarte-Segurantzarekin – La Seguridad Social



www.vitoria-gasteiz.org/pactoverde
www.vitoria-gasteiz.org/itunberdea

Ingurumen jarduera egokien V. Itun Berdea saria
I. eranskina: Eskaera eta zinpeko deklarazioa
 V Premio Pacto Verde a las buenas prácticas medioambientales
 Anexo I. Solicitud y declaración jurada

Ekonomia Sustapena, Enplegua, Merkataritza eta Turismoaren Saila
 Departamento de Promoción Económica, Empleo, Comercio y Turismo

pactoverde@vitoria-gasteiz.org

PVER_001

ERANTSITAKO AGIRIAK – DOCUMENTACIÓN APORTADA

- Enpresaren IFKaren kopia, eskaera aurkezten duen pertsonaren NANaren kopia, eta, pertsona hori enpresaren titularrak ez bada, ordekatze-ahalmenaren egiaztatzea.
Copia del CIF de la empresa, copia de DNI de la persona que presenta la solicitud, y en el caso de que esa no fuera la titular, acreditación de la representación con la que se actúa.
- Ingurumen jarduera egokiaren informazio garrantzitsuen zehazten duen memoria. II Eranskina.
Memoria en la que se detallan los aspectos más relevantes de la buena práctica desarrollada. Anexo II.
- Jardunbide egokia argitzen duten irudiak (argazkiak).
Imágenes visuales clarificadoras de la buena práctica (fotografías).
- Enpresa eta haren jarduera aurkezteko irudiak (argazkiak).
Imágenes de presentación de la empresa y de su actividad (fotografías).
- Enpresaren logoa.
Logo de la empresa.
- Foru Ogasunari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen ziurtagiria (baimena ez badago).
Certificado de estar al corriente de pagos en Hacienda Foral (si no hay autorización).
- Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen ziurtagiria (baimena ez badago).
Certificado de estar al corriente de pagos en Seguridad Social (si no hay autorización).
- Beste batzuk.
Otros.

DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA (*)

Gasteizen, -(e)ko (a)ren (e)an Vitoria-Gasteiz, a de de

lizenpea – Firma

(*)

Eskabidea sinatu aurretik, irakurri ezazu datuen babesari buruzko informazioa dagoen hurrengo orrialdean.

Antes de firmar la solicitud, debe leer la información básica sobre protección de datos que se presenta en la página siguiente.



www.vitoria-gasteiz.org/pactoverde
www.vitoria-gasteiz.org/itunberdea

Ingurumen jarduera egokien V. Itun Berdea saria
I. eranskina: Eskaera eta zinpeko deklarazioa
 V Premio Pacto Verde a las buenas prácticas medioambientales
 Anexo I. Solicitud y declaración jurada

Ekonomia Sustapena, Enplegua, Merkataritza eta Turismoaren Saila
 Departamento de Promoción Económica, Empleo, Comercio y Turismo

pactoverde@vitoria-gasteiz.org

PVER_001

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala - Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK- CIF: P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 - informacion@vitoria-gasteiz.org - www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Ingurumen-jardunbide egokientzako Itun Berdea Sarietarako deialdi publikora aurkeztutako hautaizak kudeatzea. Tratamenduaren helburu bakarra pertsona juridikoarekin harremanetan jartzea izango da. <i>Gestionar las candidaturas presentadas a la Convocatoria pública de los Premios Pacto Verde a las buenas prácticas medioambientales. La finalidad del tratamiento será únicamente mantener relaciones con la persona jurídica.</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	Ingurumen-jardunbide egokientzako Itun Berdea Sarietarako deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak. DBAOkp 6.1. b) artikulua. <i>Convocatoria pública y bases reguladoras de los Premios Pacto Verde a las buenas prácticas medioambientales. Artículo 6.1.b) RGPD.</i>
Hartzaileak <i>Destinatarios</i>	Datuak hirugarren bati komunikatu dakizkioke –soil-soilik Gasteizko Udalaren datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duen xedeak betetzeko–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoei ere. <i>Los datos podrán ser cedidos a terceras entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades y organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horietatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egingo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos. Igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>



www.vitoria-gasteiz.org/pactoverde
www.vitoria-gasteiz.org/itunberdea

Ingurumen jarduera egokien V. Itun Berdea saria
II. eranskina: Fitxa teknikoa
 V Premio Pacto Verde a las buenas prácticas medioambientales
 Anexo II. Ficha técnica

Ekonomia Sustapena, Enplegua, Merkataritza eta Turismoaren Saila
 Departamento de Promoción Económica, Empleo, Comercio y Turismo

pactoverde@vitoria-gasteiz.org

PVER_002

ENPRESAREN DATUAK – DATOS DE LA EMPRESA

ENPRESA – EMPRESA

Izena / Enpresaren izena <i>Nombre / Razón social</i>			NAN/AIZ/IFZ <i>DNI/NIE/CIF</i>		
Langileen kopurua - <i>Plantilla</i>	<input type="checkbox"/> 1 - 9	<input type="checkbox"/> 10 - 49	<input type="checkbox"/> ≥ 50		

HELBIDEA – DIRECCIÓN

Kalea <i>Calle</i>				Zenbakia <i>Número</i>			Eskailera <i>Escalera</i>		
Solairua <i>Piso</i>	Alea <i>Mano</i>			Posta-kodea <i>Cód. Postal</i>			Herria <i>Población</i>		
Udalerria <i>Municipio</i>				Lurraldea <i>Provincia</i>					
1. Telefonoa <i>Teléfono 1</i>			2. Telefonoa <i>Teléfono 2</i>			Posta elektronikoa <i>Correo Electrónico</i>			

INGURUMEN JARDUN EGOKIAREN IZENA – NOMBRE DE LA BUENA PRÁCTICA

INGURUMEN JARDUN EGOKIAREN TIPOLOGIA – TIPOLOGÍA DE LA BUENA PRÁCTICA

INGURUMEN JARDUN EGOKIAREN DESKRIAPENA – DESCRIPCIÓN DE LA BUENA PRÁCTICA

LORTUTAKO INGURUMEN HOBEKUNTZA – MEJORA AMBIENTAL OBTENIDA

LORTUTAKO ENPRESA HOBEKUNTZA – MEJORA EMPRESARIAL OBTENIDA

DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA

Gasteizen, -(e)ko (a)ren (e)an Vitoria-Gasteiz, a de de

Izenpea – Firma
